



TXIKIEN XI. GUADALUPE IGOERA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko eskualdeko atletismo elkarteak, Hondarribiko Udalaren laguntzarekin, XI. Guadalupe Txikia antolatu du 2022ko Irailaren 3ko arratsalderako, larunbata. Txikienei zuzendutako lasterketa da eta Zumardiaren inguruan, harresiaren ondoan, ibilbide laua prestatu dugu Guadalupeko igoera lasterketa herrikoia baino lehen.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 1 eta 13 urte bitarteko edozein hurrek parte hartu ahal izango du. 2008 urtetik (hau barne) aurrera jaiotako haurrak. Txikienek beren gurasoek lagunduta irten ahal izango dute.

3. ARTIKULUA - INSKRIPZIOAK

Inskripzioak 2022/07/12an irekiko dira eta **erabat dohain** izango dira.

Inskripzioa on-line irekiko da helbide honetan: www.kirolprobak.com . On-line inskripzioak irailaren 2an itxiko dira (20:00etan) eta proba egingo den egun berean izena eman ahal izango da irteera puntuan (Zumardia, Harresilanda) dortsalak agortu ez badira.

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Irteeran, 15.00etatik 16.00etara. Antolakuntzak abisatzen du hobe dela garaiz egitea gero ilaran egon beharrik ez izateko, lasterketak ezin dira atzeratu eta.

5. ARTIKULUA - LASTERKETEN ORDUTEGIA ETA DISTANTZIAK

Haurren lasterketak ordu hauetan egingo dira:

- 16h00 Haurrak mistoa (2020-2021) 150 metro (gurasoekin)
- 16h05 Haurrak mistoa (2018-2019) 150 metro (gurasoekin)
- 16h10 Mutilak (2016-2017) 150 metro
- 16h15 Neskak (2016-2017) 150 metro
- 16h20 Aurrebenjaminak mutilak (2015) 200 metro
- 16h25 Aurrebenjaminak neskak (2015) 200 metro
- 16h30 Aurrebenjaminak mutilak (2014) 200 metro
- 16h35 Aurrebenjaminak neskak (2014) 200 metro
- 16h40 Benjaminak mutilak (2012-2013) 430 metro
- 16h45 Benjaminak neskak (2012-2013) 430 metro
- 16h50 Alebinak mutilak (2010-2011) 860 metro
- 16h55 Alebinak neskak (2010-2011) 860 metro
- 17h00 Infantilak mistoa (2008-2009) 1300 metro

6. ARTIKULUA.- SARIAK.

Hamaiketako oparoa daraman poltsa SUPER AMARA-ren eskutik.

7. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, izena ematen duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izena ematen dutenenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabil ditzan, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean. (Ramon Iribarren kalea, 4 behea atzealdean, 20304 Irun)